

Erromatarrak Euskal Herrira iristen hasi zirenean, bertako herriek aurka egin zieten. Hala ere, okupazioa K.a I mendean amaitu zen.

Erromanizazio – prozesua desberdina izan zen. Gaurko Arabako lurralde gehienak erromanizazio garrantzitsua izan zuen. Bertan, hiriak eta villak sortu zituzten. Hala ere, Gipuzkoan eta Bizkaian erromanizazio – prozesua ez zen hain nabaria izan.

Garai hartatik galtzadak gordetzen ditugu. Horiek euskal lurraldeko herriak elkarren artean lotzen zituzten, baita Iberiar penintsulako beste batzuekin ere.

➤ Interneten informazioa bilatuz, erantzun erromatarrek Euskal Herrian eraikitako eraikin hauei buruzko galderak:



- ① Lehenengo irudian Gipuzkoako mendi batetan kokatuta dagoen galtzada erromatarra agertzen da. Zein da mendi hori?
- ② Bigarren irudian Iruña-Veleiako erromatar aztarnategia dugu. Non kokatzen da?
- ③ Hirugarren irudian Balmedan (Bizkaian) dagoen erromatar zubia ageri da. Zein da zubi horren azpitik igarotzen den ibaia?